

Jon Euparantza

ASKATASUNeko KIDEA ETA ABOKATUA

## Por razones humanitarias (porrazo humanitarioak)

**Z**uzenbidezko arrazoen artean, arrazoi humanitarioak argudiatuz erabaki dute Iñaki De Juana Euskal Herriratzea. 12 hilabeteotako gai krudela izan da presoarena. Harrigarria da hori esatea 177 eguneko baraua ondoren, lehenago kontrakoa argudiatuta. Tamainako krudelkeriari emandako irteera, humanismoz janztea. Harrigarria, Gobernuaren irizpideak dituen fiskaltzak Auzitegi Gorenaren (AG) hiru urteko espetxe zigorrarekin bat egitea, prozedura hasteko 96 urte eskatu zuenean. Auzitegi Nazionaleko auzian, lehen baraua utzi berri zuela, presoak zutik deklaratzeko eta saioa luzatzen zela ikustean, erredentzioak kendu zizkion epaileak bere egoera fisikoarekin kezka zuela aitortu zidaneko humanismo bera.

Politikaren zurrunbilan dira presoak eta espetxe politika. Gobernuak enfrontamenduaren gakoetan dute kokatua, irteera humanoa aipatu duen interbentzio berberetan “terrorismoaren kontrako borrokan espetxe politika arma boteretsua” dela oso argi aitortu du Rubalcabak. Lege demokratikoen aplikazioa baino lege babes duten unean uneko interesen menpe, salbuespen eta eskubide urraketatik bete.

Errealitatea gordina da: 602 preso 79 espetxetan. 16 Euskal Herrian. 39 bakartuta. 145 gaixo, 12 larri. Gaixoei bezala, kondizionalean beharko luketen beste 148ri askatasuna ukatuta. Komunikazioak murriztuak. 175 traslato 2006an, bakarra Euskal Herrira, Iruñera. 21 istripu 45 senide zaurituz. AGren doktrinarekin biziarteko zigor-



DANI BLANCO

pean 20 preso, onartutako onura penitentziarioak pena osoari baino pena bakoitzari aplikatuta, lerro judizial bortxatu bati bide emanez. 22 gazte espetxeratu eta barreiatu dituzte kolpe eta mehatxu artean espainiar geografia osoan zehar. 18/98 auziko eskaera fiskalak antzeko egoera errepika lezake. Espetxeak –eta baldintza hauetan– presoak bete nahi ote dituzte?

PP-PSOE bikoteak aurreko legegandian adostu neurriei segida eman eta bururaino praktikan jartzen ari dira, egitasmo zaharrei hauspo berria emanez. Ez dirudi erabaki isolatuak direnik, antza gehiago du irekita nahi den prozesu politikoaren baitan eta norabide politiko batean, espetxe politikaren kudeaketa zorrotzarena: estu lotzen gauzak, inoiz askatzen hasi beharko balukete soka luzeago izan eta abantaila politikoak eskuratzeko. Presoen erabilpen politiko, inoiz baino argiago ageri zaigu.

Espetxe politika gatazka konpontzeko gako nagusiak desitxuratu eta prozesua desbideratzeko balia lezakete. Errepresioarekin bezala han eta hemen. Nola uler daiteke bestela amnistia eta autodeterminazioaren aldeko mobilizazio jendetsuan PNVk zipaioen bidez probokatu zuen sarraskia? Garzonek ez zuen agindu jendetzari borrazoka eta tiroka oldartzea.

Espetxe politika honek gatazka elikatzen du, eskubideak errespetatzeak aldiz kontrakoa. Eskema errepresibotik atera beharra dute, eskema demokratikoetara egokituz, prozesu politikoak euskal presoak behar dituelako eta Euskal Herriak ere bai, gehiago atzeratu gabe, libre. ■

«  
Espetxe politika honek  
gatazka elikatzen du,  
eskubideak errespetatzeak  
aldiz kontrakoa  
»

TXANDAN

Castillo Suarez



Geratu ditzatela erlojuak. Deskonekta ezazue telefonoa. Eman egiozue hezur

mamitsu bat txakurrari zaunka egin ez dezan. Pianoak isilarazi, eta atera ezazue hilkutxa danbolin hots isil horrekin. Hurbil daitezeko dolu-dunak. Hegazkinek kexuz idatz dezatela honako mezu hau zeruan: hil egin da. Usoen lepo zurietan motots beltzak jar ditzatela. Poliziek eskularru beltzak erabil ditzatela. Bera zen nire iparra eta nire hegoa, nire ekialdea eta mendebala; nire lan astea eta jai eguna; nire eguerdia, nire gauerdia; nire elkarriketa, nire

## Funeral Blues

abestia. Uste nuen maitasunak betiko iraungo zuela. Oker nenenbilen. Ez dugu izarririk behar orain... itzal itzazue denak; ilar-

gia estali; eguzkia desarmatu. Ozeanoa urez hustu eta basoa bota. Izan ere, hemendik aurrera ezerk ez du balio izanen.

W. H. Audenen poema baten itzulpena da, hildako amorante bati idatzi ziona sobera ere. Tarteka irakurtzea gustatzen zait. Hamaika aldiz hautsi digutelako bihotza eta ezerk ez duela merezi sentitu dugulako horietan guztietan, eta, hala ere, pistara ateratzen gara berriz, guztiz osatuta ala zauriak agerian. ■